

Zinema

Euskaltzaindiaren

Hiztegian



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



UZEI

Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa

afixa

iz. Hormetan itsasten den iragarkia. *Filma iragartzen duen afixan emakume bat ikusten da.*

akreditatu, akredita, akreditatzen

1 du ad. Norbaiti lan bat edo egiteko bat betetzeko hautatua izan dela edo hartarako baimena duela adierazten duen ziurtagiria eman.

Lehendakarigaiak espero du bi hilabeteko epean izatea lehendakari; hartarako, PSEko 25 legebiltzarkideak lehenbailehen akreditatu nahi ditu eta, itxura guztien arabera, datorren astean jasoko dituzte beren aktak. || (Partizipio burutua izenondo edo izen gisa). Atzo kazetariak eta akreditatuak bakarrik gozatu ahal izan zuten filmaz.

akreditazio

iz. Ziurtagiri mota, norbait lan bat edo egiteko bat betetzeko hautatua izan dela edo hartarako baimena duela adierazten duena. *Berdin dio herrialde osorako kazetari akreditazioa baduzu, bertako agintariak erabakiko dute nor sartu han eta nor ez.*

aktore

iz. Antzezlea. *Aktore nagusia. Bigarren mailako aktoreak.*

animazio

iz. Zinemagintzako teknika, beren artean mugimendu-aldaketa oso txikiak dituzten marrazki edo irudi sail bati argazkiak eginez, eta argazki horiek abiadura jakin batean proiektatuz, higitzen direlako itxura ematen duten irudiak sortzen dituenak. *Puntako teknologia erabili gabe sekulako animazio lanak egin daitezkeela erakutsi digu film honek. Animaziozko filmak.*

antiheroi

iz. Heroi tradizionalaz guztiz bestelako ezaugarriak dituen fikziozko pertsonaia. *Eleberriko pertsonaia nagusia antiheroi alkoholiko eta bakartia zen. Antiheroi baten istorioa kontatzen du filmak.*

antzezle

iz. Zinema edo antzerki lanak jokatzen dituen pertsona. *Filmeko antzezleak, ezin hobeak. Emakumezko antzezleentzat egina. Antzezleak agertokira igoko dira berriro.*

antzezpen

iz. Antzeztea, antzezlana jokatzea. *Film horretan egin zuen antzezpenagatik dago izendatuen artean.*

antzeztu, antzez/antzeztu, antzezten

4 du ad. Antzerki lan edo film batean, pertsonaia baten rola egin. *Bere burua ez zuen gai ikusten pertsonaia nagusia antzezteko. Obra hark gatzik ez zuen, gaizki antzezten zuten, erritmoa falta zuen.*

argumentu

2 iz. Film, antzezlana, eleberri eta kidekoetan, istorioaren laburpena; kontakizunaren haria. *Argumentu sinple horretatik abiatuta, oso istorio polita eta hunkigarria egin du.*

artista

2 iz. Ogibidez musikan, dantzan, antzerkian edo zineman aritzen den pertsona. *Honela ibiltzen da artista euskalduna.*

atrezzo

iz. *antz., zin.* Agertoki batean antzezpenerako beharrezkoak diren objektu, altzari, tresna eta kidekoek osatzen duten multzoa. *Duela urte batzuk atrezzorako zerbait falta baldin bazen gure ardura zen bilatu eta aurkitzea.*

atzera begirako

1 adj. Erakusketez edo zikloez mintzatuz, artista baten lanak edo garai jakin batekoak, zaharrenetatik hasita kronologikoki antolaturik biltzen dituenak. *Robert Capa atzera begirako erakusketa izango da Gasteizko Vital aretoan. Richard Brooks zuzendariari atzera begirako zikloa eskaini diote aurtengo Donostiako Zinemaldian.*

atzerabegirako

iz. Artista baten lanak edo garai jakin batekoak, zaharrenetatik hasi eta kronologikoki antolaturik, biltzen dituen erakusketa edo zikloa. *James Ensor margolariaren atzerabegirakoa bisita daiteke egunotan, otsailaren 4a arte, Parisko Orsay museoan. 2008an Zinemaldiak atzerabegirakoa eskaini zion Terence Daviesi.*

aurrestreinaldi

iz. *Heg. zin.* Ikuskizun baten jendaurreko estreinaldia egin aurretik, jende talde aukeratu batentzat egiten den emanaldia. *Filmean parte hartu duten artistak aurrestreinaldian egongo dira asteburu honetan.*

azpidatzi, azpidatz, azpidazten

du ad. Film batean esaten denaren itzulpen edo transkripzio laburtua irudiaren behealdean jarri. *Film guztiak jatorrizko bertsioan eta azpidatzita eskainiko dira.*

azpтитulu

iz. Filmetan, behealdean agertzen den testua, esaten denaren itzulpen edo transkripzio laburtua dena. *Filma hala ikusiko da, bi hizkuntzetan eta azpтитuluekin.*

beldurrezko zinema

iz. Ikuslearengan beldurra, larritasuna edo ezinegona sorrarazi nahi duen zinema-generoa. *Lehiaketa ofizialarekin batera, 60ko hamarkadako beldurrezko zinemari buruzko atzera begirako ziklo bat prestatu dute. Beldurrezko Zinemaren Astea.*

beltz

8 iz. Literatura-generoez edo zinemaz mintzatuz, krimenen inguruko giro iluna erakusten duena eta indarkeriazko gertaerak ezaugarri dituen. *Genero beltzaren ezaugarriak dituzte ipuin horiek.*

bertsio

iz. Artelan edo literatura-lan baten gauzatzeetako bakoitza. *Film guztiak jatorrizko bertsioan eskaintzen dira zinema areto horretan. Artikuluaren bertsio laburtua.*

bideoklub

iz. Filmen eta kidekoen bideokaseteak edo DVDak alokatzen edo saltzen diren denda. *Zure amak esan dit Haizeak eramana ekarriko zidala bideoklubetik.*

bikoizketa

2 iz. Filmez mintzatuz, antzezleen jatorrizko ahotsa aldatzea, gehienetan beste hizkuntza batera. *Bikoizketarik ez zegoen, eta filmen bertsio bat baino gehiago egiten zituzten.*

bikoizle

iz. Bikoizturiko filmetan antzezle baten jatorrizko ahotsa ordezkatzeko duen pertsona. *Bikoizlearen lanaren muina dramatizazioa da; jatorrizko pertsonaiaren larruan sartu behar du.*

bikoiztu, bikoitz/bikoiztu, bikoizten

3 du ad. Filmez mintzatuz, antzezleen jatorrizko ahotsa aldatu, gehienetan beste hizkuntza batera. *Urteak badira filmak euskarara bikoizten direla. Euskaraz bikoiztutako ikus-entzunezkoak.*

casting

iz. Ikuskizun batean aktore, aurkezle, modelo edo figurante gisa aritzeko egiten den hautapropa. *Hitzetik hortzera saioaren aurkezlea bilatzeko, casting bat antolatu zuten. Diru mordoa irabaztea eta telebistan irteteko gogoia izatea dira Basetxea-ko castingera aurkezteko amuak.*

dekoratu

iz. Antzezlan edo film bateko lekua edo giroa irudikatzeko erabiltzen diren elementuak. *Beldurrezko film batetik ateratako dekoratua zirudien. Lanbidez, antzerki dekoratuen egile zen Canalettoaren aita.*

dokumental

1 adj. Filmez eta kidekoez mintzatuz, pertsonaia eta egoera errealekin edo errealei buruz egina, helburutzat zerbaiten berri ematea edo zerbait irakastea duena. *Film dokumental interesgarriak ikusi dituzte.*

2 iz. Film dokumentala. *Dokumental batean jaso dute diskoaren grabazio prozesua.*

egokitzapen

2 iz. Zinema-, antzerki- edo literatura-lan baten moldaketa. *Argi dago lan itzela egin duela bai jatorrizko testuan, bai egokitzapen bikain horretan.*

ekoitzi, ekoitz, ekoizten

2 du ad. Film bat, telebista-saio bat, antzezlan bat edo kideko bat egiteko behar diren baliabide materialak eta ekonomikoak lortu eta kudeatu. *1987an sortu zuen Jose Maria Lara ekoiztetxea, eta hainbat film ekoitzi ditu ordutik.*

ekoizle

2 iz. Zinema, antzerki edo musika lanak ekoizten dituen pertsona. *Zuazuak ez zuen lortu ekoizle onenaren saria, baina filmak sari nagusietako bi eskuratu zituen.*

ekoizpen etxe, ekoizpen-etxe

iz. Ekoiztetxea. *Zergaren igoerak zinemaren industrian ondorio larriak izango dituela ohartarazi dute zinemagile, banatzaile eta ekoizpen-etxeek.*

ekoiztetxe

iz. Zinema edo musika lanak ekoizten dituen enpresa. *Dokumentalen sorkuntzan eta banaketan espezializaturiko 13 euskal ekoiztetxe izango dira Marseillan.*

entrega

3 iz. Heg. Zatika argitaratzen edo filmatzen diren eta sail bat eratzen duten lanetako bakoitza. *Rita saileko hirugarren entrega dugu hau eta aurreko bietan bezala (Rita tenislari eta Rita Poloan), honetan ere, Valverdekin asmatu neskak dugu protagonista nagusia. Elizondon eskuratu nuen Amaia Ezpeldoi detektibearen azken entrega. Saioak aldizkarian hiru entregatan argitaratuak.*

epaimahaiburu

iz. Epaimahai baten burua den pertsona. *Cannesko zinemaldiak Tarantino izango du epaimahaiburu.*

errealizadore

1 iz. zin. Film-zuzendaria.

errealizazio

1 iz. zin. Film, bideo edo kideko bat egitea.

erreprodukzio

iz. arg., mus., zin. Erreproduzitzea.

erreproduzitu, erreproduzi, erreproduzitzen

du ad. arg., mus., zin. Soinuak edo irudiak grabaturik dauden euskarria erabiliz, soinu edo irudi horiek berriz gertarazi. *Disko mota honek hotsak eta irudiak grabatzen eta erreproduzitzen ditu.*

esketx

iz. Eszena laburra, gehienetan komikoa. *Antzezlanak, zazpi esketxez osatua izango da eta hiru aktorek beteko dituzte pertsonaia guztien rolak.*

estra

2 iz. Filmetan edo kidekoetan eszena batzuk girotzeko azaltzen den pertsona, gehienetan hitzik egiten ez duena. *Aida operan parte hartuko duten ehun estra hautatzeko proba egingo dute.*

estreinaldi

iz. Estreinatzea, lehen emanaldia. *Iragan ostiralean izan zen filmaren estreinaldia.*

estudio

4 iz. Filmak egiten eta irratsaioak edo telebista-programak grabatzen eta igortzen diren eraikina edo areto multzoa. *Hollywoodeko zinema estudio ezagunak.*

eszena

3 iz. Zineman eta telebistan, pertsonaien, lekuaren edo denboraren aldetik batasun bat duten zatietako bakoitza. *Zein zorrotz eta gordin deskribatzen dituen gerrako eszenak. Sexu eszena gordinak. Kristori buruzko eszena historikoak.*

eszenografia

1 iz. Antzezlan, film edo kideko ikuskizun bateko dekoratua edo dekoratuen multzoa. *Eszenografia apala, baina gustagarria. Eszenografia eta jantziak: Jorge Gallardo. Urria da, era berean, eszenografia bertsolarien saioetan.*

faktoria

iz. Zenbait industria-ekoizpen egiten diren lantegia, bereziki filmak ekoizten direna. *Marvel faktoria pantaila handira itzuli da The Avengers filmarekin.*

fan

iz. Abeslari, aktore edo kidekoren baten jarraitzaile eta miresle amorratua. *Bere mirespena adierazi nahi zion, fan ergel bezala agertu gabe.*

fantasiako zinema

iz. Fantasiako edo naturaz gaindiko gertaerak kontatzen dituen zinema-generoa. *Vampire Girl vs Frankenstein Girl Japoniako fantasiako zinemaren eredu da. Atal berezia eskainiko diote Sitgesko 50. Fantasiako Zinema Jaialdian.*

festibal

iz. Jaialdia. *"Besta eta sua" zuen gai nagusitzat aurtengo Errobiko festibalak, eta zinez suzko besta izan da. Huescako munduko musiken festibalak herrialde askotako artistak bilduko ditu hilaren 31 arte.*

figurante

iz. Filmetan eta kidekoetan, estra. *100 aktore eta figurante inguruk parte hartuko dute ikuskizunean.*

fikzio

1 iz. Itxurapena; asmaketa.

2 iz. Literaturan eta zineman, irudimenaren sorkaria. *Historiaren eta fikzioaren arteko jolasa dago antzezlanean.*

fikzionatu, fikziona, fikzionatzen

du ad. Fikzio bihurtu. *Emil Zatopek lasterkariaren bizitza fikzionatzen du eleberriak.* || (Partizipio burutua izenondo gisa). *Fridaren bizitzari buruzko biografia fikzionatua idatzi zuen. Imanol kantariaren bizitza fikzionatua da Fakirraren ahotsa.*

fikziozko

adj. Fikziozko obra moten sailkapena. *Fikziozko zinemagintza.*

film

iz. Zinema-lana. *Amerikar filmetan. Film batean bezalaxe dakusat neure lehena. Polizia-filmak.*

film ertain

iz. Film laburren eta luzeen arteko iraupena duen filma.

film labur

iz. 30 minutu baino gutxiago irauten duen filma. *Sei film laburreko serie baten bitartez, XX. mendeko sei zuzendari ezagunen haurtzaroa kontatu nahi dute ekoizleek.*

film luze

iz. 60 minutu baino gehiago irauten duen filma. *Euskal Zinemaren Asteak hamabi film luze eskainiko ditu Gasteizen.*

filmaketa

iz. Filmatzea. *Nahiago dut filmaketan gehiegi ez agertu, zuzendariak askatasun osoz joka dezan.*

filmatu, filma/filmatu, filmatzen

du ad. Zinema-pelikula batean edo euskarri magnetikoan irudiak grabatu. *Ama lur filmatu zutenean. Pianoa jotzen filmatu ninduen.*

filmatze

iz. Zinema-pelikula batean edo euskarri magnetikoan irudiak grabatzea. *Filmatze lanak non egingo diren erabaki gabe dago. Hogei bat oreneko filmatze zatietatik, 50 minutu irauten duen dokumentala moldatu dute.*

filmazio

iz. Zinema-pelikula batean edo euskarri magnetikoan irudiak grabatzea. *Zazpi astez luzatuko dira filmazio-lanak.*

filmegile

iz. Filmak egiten dituen pertsona. *Filmegile gazteen nazioarteko jaialdia.*

filmografia

iz. Zuzendari, aktore edo ekoizle batek egin dituen filmen multzoa. *Zinemagilearen biografia eta filmografia biltzen duen 16 orrialdeko liburuxka argitaratu dute.*

filmoteka

2 iz. Filmak eta filmei buruzko dokumentuak sailkatzen eta gordetzen diren lekua. *Nafarroako Liburutegi eta Filmoteka Nagusia.*

flashback

iz. Literaturan edo zineman, ordena kronologikoa hautsiz, kontakizunean lehenagoko gertaerak tartekatzea; lehenagoko gertaera horiek kontatzen dituen sekuentzia edo pasartea. *Eleberria flashbackez josita dago, eta orainaldiak eta iraganak bat egin ahala ustekabeak areagotuz doaz.*

folletoi

2 iz. Literatura-, antzerki- edo zinema-lana, gertakari dramatikoak, gehienetan ez oso sinesgarriak eta gutxi landuak, kontatzen dituenak. *Folletoi txar bateko aktore sentitzen zen Kepa.*

fotograma

iz. Film bat osatzen duten irudi fotografikoetako bakoitza. *Fotograma batek film bateko zatia erakusten du. Matrix-eko fotograma bat azaltzen da pantailan: Trinititi, hegazti baten hegaldia antzeratzen. Hein Völker militante gaztearen ia gorputz osoko fotograma batek hartzen zituen kartelaren luze-zabalak.*

gala

1 iz. Jaialdi edo ekitaldi berezi eta dotorea, zerbait ospatzeko edo helburu jakin bat lortzeko egiten dena. *Oscar sarien gala. Antzerkiaren gala egingo da Gaiarre antzokian.*

gidoi

1 iz. *Heg.* Irrati eta telebistan, saio baten nondik norakoa eta esan beharrekoa zehatz jasotzen duen testua; film baten gertakizuna, elkarrizketak eta ohar teknikoak jasotzen dituen testua. *Irratirako gidoiak. Zuzendari onenaren eta gidoi onenaren saria. Zinema-gidoia.*

gidoigile

iz. *Heg.* Gidoilaria. *Hollywoodeko gidoigilerik onenak.*

gidoilari

iz. *Heg.* Gidoiak idazten dituen pertsona. *Zinemagile, aktore eta gidoilaria da. Telebistan gidoilari lanetan hasi zen.*

harraldi

3 iz. zin. Kamera grabatzen hasten denetik grabazioa eteten den arteko zatia. *Kamera errailetan behera eramanez eta haren atzetik abiatu dira teknikariak ere, harraldia errepikatzeko prest. Zinemagile irandarrak harraldi bakarrean grabatu du bi orduko gorako filma.*

hartualdi

3 iz. zin. Kamera grabatzen hasten denetik grabazioa eteten den arteko zatia. *Hurbiltzeko edo urruntzeko travellingak hartualdi berean planoz aldatzeko aukera ematen du.*

heroi

3 iz. Zenbait literatura-lan edo filmetako pertsonaia nagusia, bereziki ausardia handikoa dena. *Sendatu bitartean erietxean dago Elia, eleberri intimista honetako heroi minbera eta zintzoa. Egungo gustuaren araberrako eleberrietako heroi bihurtu zara.*

horma irudi, horma-irudi

iz. Horma batean itsasten edo marrazten den irudi handia. *Leihatilaren gainean filmaren horma-irudi handi bat zegoen.*

ikuskari

2 iz. Antzerki-lan, zinema-lan edo ikuskizun baten emanaldia; emanaldi horretan aurkezten dena. *Ikuskariaren bigarren zatian.*

ikuskizun

2 iz. Antzerki-lan, zinema-lan edo kideko baten emanaldia; emanaldi horretan aurkezten dena. *Jaietako idi demak eta gainerako ikuskizunak. Zirku ikuskizunak.*

interpretazio

3 iz. Antzerki lan bateko edo film bateko pertsonaiaren baten rola jokatzeko edo antzeztea. *Zinema jaialdian, interpretazio onenaren saria eraman zuten Marivi Bilbao, Ramon Barea eta Alejandro Tejeria aktoreek.*

intriga

1 iz. liter., zin. Antzerki, film edo eleberri baten korapiloa.

2 iz. liter., zin. Film, antzerki edo kontakizun batean, gertakizunek eta egoerek ikusle, entzule edo irakurlearengan pizten duten jakin-mina; film, antzerki edo kontakizun batek jakin-mina pizteko duen gaitasuna. *Gidoi bikaina du filmak eta intrigak hasieratik amaiera arte irauten du. Egileak bidaiatzeko zaletasuna eta polizia-eleberria uztartu ditu intrigazko nobela honetan.*

izar

8 iz. Lanbide batean, batez ere zineman eta kiroletan, nabarmentzen den edo jendeak miresten duen pertsona. *Telebistako izar bat. Izar ospetsu guztiak bizi diren tokia.*

jokatu, joka/jokatu, jokatzen

7 du ad. Antzerki lan edo film batean, pertsonaia baten rola egin. *Zortzi aktorek 38 pertsonaiaren rolak jokatuko dituzte.*

kamera

iz. Zinema-, fotografia- edo telebista-irudiak hartzeko tresna. *Kameraren begi ernea.*

kamerari

iz. Zineman eta telebistan, kamerarekin irudiak hartzen dituen teknikaria. *Espedizioan hirugarren lagun bat ere izango dute, J. Baraiazarra, argazkilari eta kameraria.*

karakterizazio

iz. Karakterizatzea; horren ondorioa. *Berez, kontatzen zuena ez zen oso istorio originala, baina gidoiaren sendotasunak, pertsonaien karakterizazioak eta girotze egokiak merezitako arrakasta ekarri zioten filmari.*

kartel

iz. *Heg.* Afixa, horma-iragarkia. *Hamid Karzai presidentearen aldeko kartelez josita agertu dira Kabulgo kaleak.*

karteldeg

2 iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *karteldeg*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, 'ikuskitunak iragartzen diren aldizkarietako atala edo ikuskizunen egitaraua' adieran, hitz horren lekuan *ikuskitunak, antzerki-lanen zerrenda, programa, zinema-aretoak*, eta kideko esapideak erabiltzea gomendatzen du].

kokaleku

2 iz. zin. Filmetan, estudioz kanpoko agertokia. *Guggenheim inguruan aukeratutako hainbat kokalekutan arituko dira lanean zuzendaria eta gidoigileak.*

komedia

1 iz. Ikus-entzuleak jostaraztea helburu duen antzerki- edo zinemalana. *Molière-ren komediak. Komedia-idazlea. Komedia erromantikoen parodia da haren azken filma.*

koprodukzio

iz. Zinema, telebista, musika edo antzerkigintzako produkzio mota, enpresa bi edo gehiagoren artean eta, gehienetan, herrialde bat baino gehiagokoen artean, egiten dena. *Marseillako azoka, saltokia izateaz gain, topagunea eta koprodukzioak hitzartzeko lekua izan ohi da. Film hori Frantzia, Libano eta Palestinaren koprodukzioa da.*

kultuko

adj. Filmez, liburuez, aktoreez eta kidekoez mintzatuz, jarraitzaile talde bateko kideen artean izen handia duena, mireспен handia sorrarazten duena. *Kultuko filmak.*

lehen plano

iz. Argazkigintzan eta kidekoetan, pertsona baten edo gauza baten gertuko plano; pertsona baten burua eta sorbaldak hartzen dituen plano. *Latza zen oso irudia: harrizko mahai bat eta hildako baten oinazpiak lehen planoan.*

lokalizazio

2 iz. zin. Filmetan, estudioz kanpoko agertokia. *Louvre kafea da lokalizazio nagusia, baina ez da kafeari buruzko filma. Istorio bakoitzean Portugaleteko hiru lokalizazio agertzea ezinbesteko baldintza zen.*

marrazki bizidun

iz. pl. Animazio tekniken bidez mugiarazten diren marrazkiez eginiko filma. *Marrazki bizidunekin hazi eta hezi nintzen.*

muntatu, munta/muntatu, muntatzen

3 du ad. Zinemagintzan, film bat osatzen duten irudi eta pasarteak hurrenez hurren lotu. *Hilabete batzuetan filmatutakoa muntatzen zuen Alvarezek.*

muntatzaile

2 iz. Film bat edo kideko bat muntatzen duen pertsona. *Claude Chabrol zinemagile, ekoizle, muntatzaile eta kritikaria hil da.*

musikal

3 adj./iz. Filmez, antzerkiez eta kidekoez mintzatuz, elkarrizketekin batera, pasarte kantatu eta dantzatuak dituen. *Hollywoodeko komedia musikalak. Filmaren azken eszenak musikal batetik ateratakoa zirudien.*

neorrealismo

iz. Bigarren mundu gerraren ondoren Italian sortu zen zinema-mugimendua, errealismo bizia ezaugarri zuena, eta literaturan ere eragina izan zuena. *Rossellinik neorrealismoaren zutabeak ipini zituen, eta zinema independentearen balioa agerian utzi zuen.*

off-eko ahots

iz. Zineman, telebistan eta antzerkian, irudien gainetik entzuten den ahotsa, besteak beste, narratzaile baten antzera, gertatzen ari dena kontatzen edo azaltzen duena. *Saioaren off-eko ahotsa, berriz, M. Fernandezek jarriko du. Abiada bizian agertzen dira irudiak pantaila handian; off-eko ahotsak kontakizun autobiografikoa iragartzen digu.*

palmares

1 iz. Lehiaketa edo kideko bateko irabazleen zerrenda. *Zinemaldiko epaimahaiburuak Sail Ofizialeko palmaresa jakinarazi du.*

pantaila

1 iz. Irudiak proiektatzen diren xafla modukoa. *Diapositiben proiektzioak egin daitezke pantaila zuri batean.*

2 iz. Telebistan eta gailu elektronikoetan irudiak eratzen diren azala. *Telebista piztu nuen arreta pantailan jarri eta nire pentsamenduen gurpila gelditzeko.*

pantailaratu, pantailara/pantailaratu, pantailaratzen du ad. Pantailan eman, pantailara eraman. *Maiatzaren 7an eta 8an 18 film labur pantailaratuko dira.*

pelikula

1 iz. Filmak grabatzeko edo argazkiak egiteko erabiltzen den zinta. *Denborarekin zeluloidezko pelikulak hondatu egiten direlako.*

2 iz. Heg. Filma. *EITBren laguntza du pelikulak eta gabonetan helduko da zinema-aretoetara. Lehengo pelikulak asko gustatzen zaizkit, klasikoak. Disney etxearen pelikulak 940 milioi dolarreko irabaziak izan ditu.*

pertsonaia

iz. Literatura-lan bateko edo film bateko gertakizunean esku hartzen duten pertsonetako bakoitza. *Pastoral batek berrogeita hamar bat pertsonaia eskatzen ditu. Karl Kraussen ipuin labur bateko pertsonaiari gertatu zitzaiona gerta ez dakion.*

plano

3 iz. Zineman, ikuspuntu jakin bat duen irudia, sekuentziak osatzen dituen. *Minutuak eta minutuak igaro dira eta kamera geldirik dago plano berean.*

plato

iz. Telebista edo zinemarako irudiak filmatzeko prestaturiko agertokia. *EITBko platoetan grabatutako emanaldia.*

postprodukzio

iz. Film bat filmatu ondoren edo telebista- edo irrati-saio bat grabatu ondoren, filmari edo saioari behin betiko forma eta itxura emateko egiten diren azken lanak, jendaurrean erakutsi aurrekoak. *Postprodukzioak, berez, findu egin ohi du produktua, profesionalizatu. Zenbaitetan postprodukzioak mirariak egiten baditu ere, ezer gutxi irabaz dezake film batek aurreko produkzio faseetan lan egiten ez bada. Gaur amaituko dute filmaketa, baina astelehenetik aurrera postprodukzio lanekin jarraituko dute, atsedetik hartu gabe.*

prekuela

iz. zin., liter. Zinema- edo literatura-lana, aurretik eginiko beste film edo lan bateko gertakarien aurrekoak kontatzen dituen. *Peter Panen istorio ezagunaren prekuela egiteko, J.M Barriek sortu zituen pertsonaietan oinarritu da Joe Wright.*

produktore

2 iz. Zinema, antzerki edo musika lanak ekoizten dituen pertsona. *Coppolak gidoilari, produktore eta zuzendari lanak egin ditu Tetro filmean.*

produzitu, produzi, produzitzen

2 du ad. Film bat, telebista-saio bat, antzezlan bat edo kideko bat egiteko behar diren baliabide materialak eta ekonomikoak lortu eta kudeatu. *Leonardo DiCapriok produzituriko beldurrezko filma.*

programa

1 iz. Egitaraua.

proiektatu, proiektu, proiektatzen

1 du ad. Argi iturri baten bidez, pantaila batean, film, diapositiba eta kidekoen irudi handitua sortu. *Gaur iluntzean, Maite Gurrutxagaren ilustrazioen diapositibak proiektatuko dituzte.*

proiektatzaile

iz. Filmak eta kidekoak proiektatzen dituen pertsona. *Apopilo hartzen gintuena zinema-aretoko proiektatzailea zen.*

proiektzio

iz. Proiektatzea; proiektatzearen ondorioa. *Proiektzio-aretoko argiak piztearekin batera. Lehen proiektzioa 16:30ean egingo da; bigarrena, 18:30ean.*

protagonista

1 iz. Antzerki lan, literatura-obra, film edo kidekoen bateko pertsonaia nagusia. *Poema horretan jendea, "masak" dira egiazko protagonista, ez izaki bakun batzuk. Filmeko bi protagonistak.*

remake

iz. Film baten egokitzapen edo bertsio berria. *1981eko filmaren remake hau hiru dimentsiotan ikus daiteke hainbat aretotan.*

rol

2 iz. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzeztzen duen zatia. *Atzoko emanaldian, M.J Moreno sopranoak etekina atera zion Musetta kaskarinaren rolari.*

saga

3 iz. Pertsonaia jakin baten edo batzuen inguruan ardatzen den eleberri, ipuin edo film saila. *Oraingoan ere filma ez da iristen sagako lehen hiruren mailara. Fantasiatzko sagako azken liburua euskaraz argitaratu dute aste honetan: Harry Potter eta Herioaren erlikiak.*

saria eskuratu

du ad.-lok. *Bardemek aktore onenaren saria eskuratu zuen lan honekin Cannesko zinemaldian.*

sekuela

iz. zin., liter. Zinema- edo literatura-lana, aurretik eginiko beste film edo lan batean kontaktzen denaren jarraipena dena. *Zaila izaten da thriller baten aurreneko zatiaren ostean datozen sekuelak onak izatea. Filmaren bi sekuela egin zituzten hurrengo urteetan.*

sekuentzia

2 iz. Zineman, kontakizunaren atal bakoitza osatzen duten planoen multzoa. *Aurreko sekuentzian utzi ditugun bezalaxe daude pertsonaiak.*

soinu banda, soinu-banda

iz. Film batean kontakizunaren lagungarri jartzen diren musika-pieza eta kantuen multzoa. *Carlo Rustichellik zinemarako 400 soinu banda inguru egin zituen, eta Italiako zinema-zuzendari ospetsuenekin egin zuen lan.*

soinudun

adj. Soinua duena; bereziki, filmez mintzatuz, soinua erreproduzitzen duena. *Film soinuduna.*

superproduktzio

iz. zin. Baliabide ugari eta aktore ezagunak erabiliz egiten den film ikusgarri eta kostu handikoa. *Zuzendariak Australiako aktore ezagunenak aukeratu ditu superproduktzio honetan parte hartzeko.*

suspense

iz. *liter., zin.* Film edo kontakizun batean, larritasuna sortzen duen unea edo pasarte; sentipen hori sor dezakeenaren nolakotasuna. *Alberto Ladronek suspenseari eusteko iaioitasuna erakutsi du.*

telefilm

iz. Telebistan ikusteko egindako filma. *Telebistak zuen indarraz ohartu eta telefilmak egiten hasi zen 70eko hamarkadan. Telebista kate guztiak eskaintzen dizkiguten emankizunetan polizia-telefilmak dira nagusi.*

telenobela

iz. Melodrama kutsuko telesaila. *Jende askok bere miserien nolabaiteko gozagarria bilatzen du telenobeletan.*

telesail

iz. Telebistarako film narratiboa, hainbat kapitulutan banatua emateko egina dena. *I, Claudius, Erresuma Batuko BBC telebista kateak 1976an ekoitzi eta eman zuen telesail laburra da.*

thriller

iz. Suspense eta intriga handiko filma edo eleberria. *Diktadura garaiko Iruñean giroturiko thriller bat. Thriller psikologiko baten gidoia idazten ari naiz.*

trailer

2 iz. Film baten zatien segida, film hori iragartzeko erabiltzen dena. *Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dute filmaren trailerra.*

trama

iz. *antz., zin.* Film, antzezlan, eleberri eta kidekoetan, kontakizunaren haria. *Hiru pertsonaia hauen arteko harremanek ematen diote tramari behar duen tentsioa.*

travelling

iz. *zin.* Mekanismo gurpildun batez kamera zoru gainean higitzea; mekanismo hori bera. *Kamera bik hartuko dute sekuentzia; finkoa izango da bat eta travellingean joango dena bestea.*

txartel leihatila, txartel-leihatila

iz. Geltokietan, zinemetan eta kidekoetan, txartelak saltzen diren leihatila.

western

iz. Ameriketako Estatu Batuen mendebaldeko konkista edo konkista garaiko gorabeherak gaitzat dituen filma. *Telebista piztu eta The Outriders* izeneko film bat ikusten hasi ginen, 1950eko westerna.

zeluloide

2 iz. Zinema. *Pelikula berriak urri ditugulako, zeluloide zaharra agertzen zaigu noizean behin. Zainetan darama zeluloidea J. Angulok. Musika produktore gisa hasi zuen bere ibilbidea, eta gero jo zuen zeluloidera.*

zientzia-fikzio

iz. Literatura eta zinemagintzako generoa, etorkizuneko balizko mundu eta gizarte batean girotutako istorio fantastikoak kontatzen dituen. *Orain hainbeste famatzen diren zientzia-fikziozko istorio futurista horietariko bat. Zientzia-fikziozko nobelak.*

zigilu

6 iz. Zenbait produktuz mintzatuz, bereziki disko, liburu eta filmez mintzatuz, ekoizlearen edo argitaratzailearen marka edo izena. *Cénlit argitaletxe nafarrak sortu zuen Denonartean zigilua. || Bonberenea Ekintzak zigilupean kaleratu du Barakaldoko taldeak disko berria.*

ziklo

3 iz. Gai, pertsona edo erakunde baten inguruan egiten diren hitzaldi edo kultura ekintzen multzoa. *Zinema beltzari buruzko zikloa.*

zine

iz. Zinema.

zineklub

iz. Zinemazaleen elkarteak, filmen emanaldiak antolatzea eta haiei buruzko eztabaida eta mahai-inguruak egitea helburu duena. *Hil honetan Europako zinema mutuari buruzko zikloa antolatu du Bilboko Fas zineklubak.*

zinema

1 iz. Zinematografiaren teknika eta artea; arte horri dagokion industria. *Hogeita hamar urte hauetan zinemak egin duen aurrerabidea. Zinema amets fabrika da. Zinema-irudiak. Zinema-antzezle bikaina da. Zinema-ikusleen gogoko filma. Zinema-astea antolatu dute. Zinema-zuzendaria.*

2 iz. Herri, garai, genero edo egile baten zinema-lanen multzoa. *Euskal zinema. Italiako zinema.*

3 iz. Zinema-aretoa. *Ikusle bat baino gehiago txundituta atera zen zinematik.*

zinema beltz

iz. XX. mendearren 30eko hamarkadan Estatu Batuetan sortu zen zinema-generoa, gaizkileen eta gizarte- eta politika-ustelkeriaren inguruko giro iluna erakusten duena. *Zinema beltzak hainbeste maite dituen galtzaile inozo bezain arriskutsuak baliatu ditu Lumetek. Zinema beltzetik hurbil dagoen lana egin du zuzendariak.*

zinema jaialdi, zinema-jaialdi

iz. *Filmak kritika onak jaso ditu Veneziako, Torontoko eta Sitgesko zinema-jaialdietan.*

zinema mutu

iz. Zinemagintzaren hasierako garaietan soinurik eta ahotsik grabatu gabe egin ziren zinema-lanen multzoa. *Zinema mutuaren garaitik 1983ra bitartean. Zinema mutuaren estiloa eta imintzioak.*

zinemagintza

iz. Filmak egitea; zinema-industria. *Zentsuraren mamuak astindu du beste behin Hollywoodeko zinemagintza.*

zinemaldi

iz. Zinema-jaialdia. *Jerusalemgo Nazioarteko Zinemaldiak 200 filmetik gora eskainiko ditu aurten.*

zinemarratu, zinemara/zinemarratu, zinemarratzen

du ad. Gai edo kontakizun bat zinemaren bidez eman. *Melvilleren eleberrri ezaguna zinemarratzean, antolamendu leiala, trebea eman digu.*

zinemaskope

iz. Filmak pantaila zabalean proiektatzeko zinema-sistema. *Oasia (1955), Frantzian egin zen zinemaskopeko lehen filma.*

zinemateka

iz. Filmak eta filmei buruzko dokumentuak sailkatzen eta gordetzen diren lekua. *Jose Luis Borau zuzendari espainiarrari buruzko atzera begirako zikloa antolatu du museoko zinematekak.*

zinematografia

1 iz. Higitzen diren irudiak argazkien bidez hartzeko eta proiektatzeko teknika. *Zinematografia eredu jakin bati jarraitu gabe eginiko lanaren emaitza da zuzendari gipuzkoarraren filma.*

2 iz. Zinematografiaren artea edo industria. *Hiru zuzendari hauek oso goian jarri dute bide berriak urratzen ari den gure zinematografiaren langa.*

zinematografiko

adj. Zinematografiarena, zinematografiari dagokiona. *Berez oso zinematografikoak ez diren ahozko kontakizunei etekin ederra atera die zuzendariak.*

zinematografo

iz. g. er. Higitzen diren irudiak argazkien bidez hartzeko eta proiektatzeko tresna. *Lumière anaiek 1895ean asmatu zuten zinematografoa, eta Parisko milaka irudi filmatu zituzten.*

zinemazale

iz./adj. Zinemaren zalea dena. *Zinemazale amorratua bihurtu zaigu.*

zoom

iz. Zinema edo argazki kameraren objektibo mota, kamera mugitu gabe plano zabal batetik lehen plano batera pasatzea ahalbidetzen duena. *Bigarren argazkia egiteko, hurbildu egin du irudia zoomarekin.*

zuzendari

1 iz. Erakunde, talde edo zerbitzu baten jarduera, egitekoa edo lana zuzentzen duen pertsona. *Eta, horretarako, gutxi bezalako antzezleri bat aurkitu du filmaren zuzendariak.*

Eguneratze-data: 2024-09-17



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



UZEI

Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa